

/2021 FORU AGINDUAREN PROIEKTUA, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez arautzen baitira jarduera ekonomikoen gaineko zergarekin lotutako betebeharrak batzuk eta aldatzen baita abenduaren 30eko 427/2013 Foru Agindua, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilariak emana, F-65 eredu onetsi zuena, "Aukera eta ukoak. Zentsu bereziak (BEZa). Jarduera hasi aurreko jakinarazpena" izenekoa.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatu duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak salbuespen bat sartu du ekonomia jardueren gaineko zergaren subjektu pasiboentzat, haiek 1.000.000 eurotik beherako negozio-zifra dutenean eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen arabera mikroenpresentzat hartzeko baldintzak betetzen dituztenean; hain zuzen, g) letra gehitu zaio martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1 artikuluari.

Bestalde, foru lege horren 157.1 artikulua ezartzen duenez, ekonomia jardueren gaineko zergaren subjektu pasiboek jakinarazi beharko dituzte zergapetutako jarduerak gauzatzean gertatzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoak, baldin eta aldaketa horiek garrantzitsuak badira zerga hori ordaintzeko orduan, eta erregelamenduz ezartzen diren epe eta baldintzetan formalizatuko dituzte.

Salbuespena aplikatzeko, foru agindu honek ezartzen du ezen ekonomia jardueren gaineko zergaren subjektu pasiboek, aldezturik horren berri Nafarroako Foru Ogasunari eman ez badiote, negozio-zifraren zenbateko garbiaren berri eman behar dutela, eta jakinarazi behar dutela baldintzak betetzen ote dituzten Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen arabera mikroenpresentzat hartzeko. Jakinarazpen hori beharrezkoa da zerga behar bezala kudeatzeko; izan ere, informazio hori ez da Zerga Administrazio honetan aitortu, eta ekonomia arloko datu aldakorra da, zergapetutako jardueretan gertatzen dena, eta garrantzia du zerga ordaintzeko, bereziki aipatutako salbuespena aplikatu ahal izateko.

Ekonomia jardueren gaineko zerga kudeatzeko arauak (azaroaren 11ko 614/1996 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren) ezartzen dute Ekonomia eta Ogasun Departamentuak udalei bidali behar diela Ekonomia Jardueren Erregistroa, urte bakoitzeko martxoaren 15a baino lehen. Hori dela eta, komeni da ezartzea jakinarazpenak aurkeztu behar direla, zer ekitalditan dituzten ondorioak, horretako otsailaren 15a baino lehen.

Bukatzeko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen azken xedapenetako lehenengoak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari lege hori garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak onets ditzan, eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren zazpigarren xedapen gehigarriak baimena ematen dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari foru agindu bidez arautzeko zergadunek eta entitateek zein kasutan eta baldintzatan aurkez ditzaketen, bide elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabiliz, aitorpenak, komunikazioak, likidazio-aitorpenak, autolikidazioak edo zerga arloko araudiak eskatzen dituen beste edozein agiri.

Hori guztia dela eta,

#### AGINTZEN DUT:

Lehenengo artikulua. Onestea negozio-zifraren zenbateko garbia jakinarazteko betebeharra eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen arabera mikroenpresatzat hartzeko baldintzak betetzen direla jakinarazteko betebeharra.

1. Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1.g) artikuluan aurreikusitako salbuespenari dagokionez, onesten da jarduera ekonomikoen gaineko zergaren subjektu pasiboek jakinarazi behar dutela negozio-zifraren zenbateko garbia, bai eta baldintzak betetzen ote dituzten ere mikroenpresatzat hartzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen arabera. Ondorio horietarako, negozio-zifraren zenbateko garbia kuantifikatzeko, aipatutako artikuluan aurreikusitakoa beteko da.

2. Honako hauek daude salbuetsita foru agindu honetan aurreikusitako jakinarazte betebeharretik:

a) Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1 artikuluko a) letratik f) letrara bitartean ezarritakoaren arabera, ekonomia jardueren gaineko zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboak.

b) Zerga-aitorpenen batean Nafarroako Foru Ogasunari negozio-zifraren zenbateko garbiaren berri eman dioten subjektu pasiboak.

c) Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1 artikularen g) letran salbuespenerako aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituzten subjektu pasiboak.

d) Nafarroan establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak.

3. Jakinarazpena egiteko, F-65 ereduak aurkeztuko da, "Aukera eta ukoak. Zentsu bereziak (BEZa). Jarduera hasi aurreko jakinarazpena" izenekoak, abenduaren 30eko 427/2013 Foru Aginduan araututa dagoena.

F-65 ereduak urtarrilaren 1etik otsailaren 14ra bitarte aurkeztu beharko da, biak barne, jakinarazpen horrek zer ekitalditan izanen dituen ondorioak ekonomia-jardueren gaineko zergan, horrexetan.

Bigarren artikulua. l) letra gehitzen zaio abenduaren 30eko 427/2013 Foru Aginduaren 2. artikuluari:

"l) Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren subjektu pasiboak, negozio-zifraren zenbateko garbia jakinarazi behar dutenak.

Negozio-zifraren zenbateko garbiaz gain, hala badagokio, jakinaraziko da ea subjektu pasiboan zuzenean edo zeharka % 25eko edo gehiagoko partaidetza duten negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 eurokoa edo handiagoa duten enpresek, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 94. artikuluan aipatutako arrisku-kapitaleko

erakundeak badira, partaidetza hori azken horiek helburu soziala betetzearen ondorio denean.

Sozietate taldeen kasuan, Merkataritza Kodearen 42. artikulua zentzuan, erakunde nagusiek dute F65 eredia aurkezteko betebeharra eta, gainera, taldeko entitate guztien **identifikazio fiskaleko zenbakia** zerrendatu beharko dute eredian. Berdin jokatuko du pertsona fisikoa den subjektu pasiboak, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 150.1.g) 3. artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako lotura kasuetan.

Egoiliarra ez den pertsona edo erakunde baten establezimendu iraunkor batzuk Espainiako lurraldean kokatuta daudenean, egoiliarra ez den pertsonak edo entitateak aurkeztu beharko du F-65 eredia, eta bertan jasoko dira establezimendu iraunkor guztien negozio-zifraren zenbateko garbia eta horietako bakoitzaren **identifikazio fiskaleko zenbakia.**”

Xedapen iragankor bakarra. 2022ko negozio-zifraren zenbateko garbiaren jakinarazpena aurkezteko epea.

2022ko zergaldian eragina izanen duen negozio-zifraren zenbateko garbiaren jakinarazpena egiteko, F-65 eredia aurkeztu beharko da, 2022ko urtarrilaren 1etik martxoaren 14ra bitarteko epean.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitorpenei aplikatuko zaie.